



**AGINDUA, BERDINTASUN, ORDEN DE LA CONSEJERA DE
JUSTIZIA ETA GIZARTE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS
POLITIKETAKO SAILBURUARENA, SOCIALES, POR LA QUE SE APRUEBA
ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURRETIK CON CARÁCTER PREVIO EL
ONARTZEN BAITA PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE
"LAGUNKOITASUNEKO BAITA SE REGULA EL "PREMIO DE BUENAS
JARDUNBIDE EGOKIEN SARIA" PRÁCTICAS EN AMIGABILIDAD"
ARAUTZEN DUEN DEKRETU-
PROIEKTUA**

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko otsailaren 1eko Aginduaren bidez hasi zen "Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria" arautzen duen dekretu-proiektua prestatzeko prozedura.

Mediante la Orden de 1 de febrero de 2023, de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, se inició el procedimiento de elaboración del Proyecto de Decreto por el que regula el "Premio de Buenas Prácticas en Amigabilidad".

6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarena, 12. Artikuluan ezartzen du: "Xedapen orokorrek egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da".

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento del Elaboración de Disposiciones de Carácter General dispone, en su artículo 12, que "el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen".

Lege horrek 15. artikuluan honako hau ezartzen du: "Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak

De conformidad con lo establecido en el artículo 15 de dicha Ley "una vez redactados los proyectos de disposiciones de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación,





aldez aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik ”. audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio”.

Adierazitakoaren ondorioz, honako hau En virtud de lo anteriormente expuesto,

EBAZTEN DUT:**RESUELVO:**

Lehena. - Aldez aurretik onartzea “Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria” arautzen duen dekretu-proiektua prestatzeko prozedura.

Primero. - Aprobar con carácter previo el Proyecto de Decreto por el que regula el “Premio de Buenas Prácticas en Amigabilidad”.

Bigarrena. - Dekretu-proiektua egiteko prozedura izapidetzen jarrai dadila agintzea, hasiera-aginduan eta 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena ezarritako izapideen arabera, dekretua onartzeko.

Segundo. - Ordenar la continuación de la tramitación del procedimiento del proyecto de decreto, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de Inicio y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, a los efectos de la aprobación del decreto.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua
La Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

NEREA MELGOSA VEGA



XX/XXXX DEKRETUA, “Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria” arautu eta 2023ko deialdia egitekoa.

Adinekoen arloko lagunkoitasun-mugimendua 2005. urtean sortu zen, Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) sustatuta, Rio de Janeiroko XVIII. Gerontologia Batzarrean (Age-Friendly Cities). Mundu mailako biztanleriaren bi joera hauek piztu zuten mugimendua: zahartze demografikoak eta urbanizazio-prozesuak. Zahartze Aktiboaren paradigmaten teoria dauka oinarrian. 2002an definitu zen paradigma hori, honatx: osasun-, parte-hartze eta segurtasun-aukerak optimizatzeko, eta zahartu ahala jendearen bizi-kalitatea hobetzeko prozesua.

Beraz, OMEren arabera ingurune lagunkoiak bizitza independentearen, zahartze aktiboaren eta autonomia pertsonalaren alde egiten du, osasun-, parte-hartze eta segurtasun-aukeren optimizazioa bultzatuz, jendearen bizi-kalitatea hobetzeko. Zahartze aktiboa sustatzen duten hiri-ingurune integratzaile eta irisgarriak, horiexek dira adinekoentzako udalerrri lagunkoiak. Udalerrri lagunkoiek beren egitura eta zerbitzuak berrantolatzen dituzte pertsona guztiei kalitate, segurtasun eta erosotasun ezin hobek eskaintzeko, haien gaitasunak edozein direlarik ere. Horrela, bizitza sozialeko alor guztietako parte-hartzea sustatzen dute.

Testuinguru horren barruan sortu zen «Euskadi Lagunkoia» proiektua. Herritarren eta sektore publikoaren, pribatuaren eta sozialaren parte-hartzea sustatzeko ekimena da, Euskadin lagunkoitasunaren aldeko mugimendu bat garatzeko, eta, horrekin batera, zahartzen ari diren pertsonentzako bizitza-ingurune erraztatzaileak sustatzeko.

Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Sariaren helburua da adinekoentzako ingurune erraztatzaileak sortzeko asmoz, lagunkoitasun berritzaile eta eraginkorrak dakartzaten jardunbide egokiei merezi duten aintzatespena ematea.

Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Sariaren lehen edizioa 2019an egin zen, eta, harrezkero, urtero arautu eta deitu da. Lagunkoitasunaren arloan jardun diren Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde, organismo eta pertsonen ahaleginak sustatu, baloratu eta aitortzea oso interesgarria denez, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailaren asmoa da sari hori urtero deitzea, eta, horretarako, 2023ko ekitaldiari dagokion deialdia egingo da honen bidez, dekretu honen hirugarren xedapen gehigarrian jasota dagoen bezala.

Horrenbestez, dagozkion nahitaezko txostenak eman ondoren, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen helburua da Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria ematea, publikoki goresteko lagunkoitasunaren arloan berritzaileak eta eraginkorrak diren jardunbideak garatzen eta adinekoentzako ingurune erraztatzaileak sortzen dabiltzan erakunde publiko eta pribatuak.

Horretarako, lagunkoia zera da, hiri-ingurune integratzaile eta irisgarria osatzen saiatzen den faktorea, zahartze aktiboa sustatzen duena adinekoen osasun-, parte-hartze eta segurtasun-aukeren optimizazioa landuz. Horrela, pertsona horien parte-hartzea ahalbidetzen da bizitza sozialeko alor guztietan.



2. artikulua.- Saria

1.- Saria emateko, kontuan hartuko da zein praktika nabarmendu den gehien, lagunkotasuna gogoan hartuta ingurune erraztatzaileak sortzeko praktika berritzaile eta eraginkorrak dituelako (3.000 euro).

2.- Halaber, bai saritutako jardunbidea bai oinarri hauetan jasotako lagunkotasun-jardunbide egokiak betetzen dituzten hautagaitzak «Euskadi Lagunkoia» atariaren Jardunbide Egokien Katalogoan jasoko dira, eta atariarekin lotutako webgunean argitaratuko.

3. artikulua.– Deialdia.

Lagunkotasuneko Jardunbide Egokien Saria Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuak deituko du urtero. Deialdiaren aginduan honako hauek adieraziko dira: deialdiaren xedea, esku hartzeko arloa, hautatutako gaia, hautagaitzak aurkezteko epea eta epaimahaikideen izendapena.

4. artikulua.- Jardunbideek bete beharreko baldintzak

Hautagaitzek lotura izan beharko dute adinekoei begira lagunkotasun-jardunbide egokitzat jotzen diren jarduketekin, eta halakotzat joko dira deialdi honetan parte hartzeko eskaera aurkezterakoan honako baldintza hauek betetzen dituzten ekimenak, esperientziak eta esku-hartzeak:

1.- Bizi-ingurune erraztatzaileen alde egin behar dute honako esku-hartze alor hauetako batean edo gehiagotan:

- A) Kanpoko espazioak eta eraikinak
- b) Garraioa
- c) Etxebizitza
- d) Parte-hartzea eta gizarte-ehuna
- e) Errespetua eta inklusioa
- f) Herritarren parte-hartzea eta enplegua
- g) Komunikazioa eta informazioa
- h) Gizarte- eta osasun-zerbitzuak

2.- UNESCO erakundean «Management of Social Transformation» programaren (2003) esparruan zehaztutako baldintza hauetako bat bete beharko dute:

- a) Berrikuntza: konponbide berri edo sortzaileak garatzea.
- b) Eraginkortasuna: berrikuntzaren gaineko eragin positibo eta nabarmena frogatzea.
- c) Jasangarritasuna: eskakizun sozial, ekonomiko eta naturalengatik luzaroan mantendu daiteke eta efektu iraunkorrak izan ditzake.
- d) Errepikatzeko modukoa izatea: beste toki batzuetan politikak, ekimenak eta



jarduketak garatzeko eredu izan behar du.

3.- Urteko deialdi bakoitzean, Jardunbide Egokien Saria zein gairi buruzkoa izango den adieraziko da, bai eta zer arlotako esku-hartzea den ere (artikulu honen 1. puntuan adierazitakoetatik).

Horretarako, gaia urtero hautatuko da prozesu baten bidez. Prozesu horretan, «Euskadi Lagunkoia» sarea osatzen duten udalerriek parte hartuko dute.

Urteko deialdiaren aginduan adierazitako gaiarekin bat ez datozen eskabideak agindu horretatik kanpo geratuko dira.

5. artikulua.– Sariaren kudeaketa.

Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen zuzendaria izango da organo kudeatzailea.

6. artikulua.– Hautagaitzak aurkeztea.

Euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeek aurkez dezakete Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Sarirako hautagaitza (Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikuluan zehaztutakoaren arabera), bai eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta jarduera nagusia bertan egiten duten pertsona juridiko pribatuek ere.

7. artikulua.- Izapidetze elektronikoa.

1.- Izapidetzea bide elektronikoz egin beharko da ezinbestean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: https://www.euskadi.eus/saria_lehiaketa/2020/lagunkoitasuneko-jardunbide-egokien-saria-2020/web01-tramite/eu/

2.- Espedienterako sarbidea eta eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

8. artikulua.- Eskabidea, eta horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskabideak elektronikoki aurkeztu behar dira, hilabeteko epean, aurkeztu beharko dute eskabidea, deialdi-agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

– Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Erakundearen legezko ordezkariak egiaztatzen duen dokumentazioa, baldin eta eskabidea sinatu duen pertsona ez badago erakunde eskatzailearen ordezkari gisa inskribatuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoa. Hona hemen ordezkarietzako sarbidea: <https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

b) Azalpen-memoria bat, saria eskuratzeko aurkezten den jardunbidearen ezaugarriak eta xehetasunak azaltzeko. Horrekin batera, aipatutako memorian jasotako informazioa egiaztatzeko beharrezko dokumentuak ere aurkeztuko dira, baita epaimahaiak baloratu beharrezkotzat jotzen direnak ere, saria lortze aldera.

Erakundeek bete beharreko memoriaren eredia urteko deialdiaren Aginduan argitaratuko da, eta eskuragarri egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio



Publikoaren egoitza elektronikoa:
https://www.euskadi.eus/saria_lehiaketa/2020/lagunkoitasuneko-jardunbide-egokien-saria-2020/web01-tramite/eu/.

2.- Urteko deialdira biltzen diren erakunde guztiak honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskaera aurkezteko epea amaitu aurretik:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.
- b) Dirulaguntzen itzulketagatik eratorritako betebeharrak ordainduta izatea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamenduaren 21. artikuluan xedatutako baldintzetan –ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua–.
- c) Ez izatea laguntza publikoak jasotzeko aukera ukatzen duen zehapen administratibo edo penalik, ezta laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duen legezko debekurik ere.
- d) Ez egotea sexu-diskriminazioagatik zehapen administratibo edo penalik betetzen, eta ez egotea debeku horrekin zigortuta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera.
- e) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako egoeretakoa batean.

Aurreko a) letran ezarritako baldintza bete izanaren egiaztapena ofizioz egingo du organo kudeatzaileak, erakunde eskatzaileak egiaztapen horren aurka egin ezean; kasu horretan, erakunde horrek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu, egiaztapen horiek egiteko erakunde eskudunek eman beharko dituztenak.

Aurreko b), c), d) eta e) letretan jasotako baldintzen justifikazioa erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egingo da, eskaera-formulario elektronikoan jasotako baldintzen arabera.

9. artikulua.- Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea

1.- Eskabideak ez baditu betetzen Dekretu honetan jasotako guztiak, edo osatugabea edo akastuna bada, erakunde interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean hutsa zuzentzeko edo nahitaezkoak diren dokumentuak aurkezteko; eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

10. artikulua.- Epaimahaia

1.- Hautagaitzak ebaluatu eta saria merezi duena hautatzeko, epaimahai bat eratuko da urtero. Epaimahai hori Eusko Jaurlaritzaren eta beste euskal erakunde batzuen ordezkariak eta adinekoen arloan lan egiten duten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko elkarte eta erakundeen ordezkariak osatuko dute.

2.- Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuordea izango da epaimahaiburua.

3.- Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen zuzendaritzari atxikitako norbait izango da epaimahaiko idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.



4.- Epaimahaiaren osaera Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Sariaren urteroko deialdi-aginduan argitaratuko da.

5.- Epaimahaiaren jarduerak eta epaimahaikideen abstentziorako eta ezespenerako araubideak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea izango dute arau.

6.- Epaimahaiko norbait falta bada, ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, ordezkoezkatuko dituzte epaimahaikideak.

7.- Bilkurak egin, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko moduan egotekotan, behar bezala eratu behar da epaimahaia. Horretarako, kideetako lauk egon behar dute bertan, gutxienez, eta horien artean, batzordeburuak eta idazkariak, edo haien ordezkariak.

8.- Erabakiak botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, batzordeburuak ebatziko du, kalitatezko botoa baliatuz. Erabakiak baliozkoak izateko, beharrezkoa izango da presidentea eta idazkaria edo haien ordezkoezkatuko bertan egotea, eta, edonola ere, kideetako lauk bertan egon behar dute, gutxienez.

Epaimahaiko idazkariak erabakitzen diren jarduera eta akordio guztien akta egingo du. Akta horretan, sariaren erabakia oinarritzen duen irizpen arrazoitua jaso beharko da.

9.- Epaimahaiaren osaeran trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu bermatuko da, hargatik eragotzi gabe dekretu horren 3. artikulua 10 d) apartatuan xedatutakoa. Hori guztia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikulua 2. eta 3. apartatuak betez.

Kasu horretarako, ordezkariak orekatu zera da: lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan edo antzeko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkariak izatea. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkariak daudenean izango da orekatua.

11. artikulua.- Balorazio-irizpideak

1.- Esleipen-proposamena prestatzeko, epaimahaiak 90 puntu emango ditu gehienez, honako irizpide hauen arabera:

Izaera berritzailea: 30 puntu

Lagunkoitasunari heltzeko orduan aurrerapenak eta hobekuntzak ekarriko dituzten ekintza eta metodologia berriak edo sortzaileak garatzea (10 puntu)

Transferigarritasuna: hedatzeko edo beste nonbait egiteko modukoa izatea (10 puntu)

Ekintzen diseinuan, ebaluazioan eta ezarpenean herritarren parte hartzea sustatzea (10 puntu)

Proiektuaren kaudimena eta kalitate teknikoa: 25 puntu

Diagnostikoa: ekimenak edo proiektuak identifikatutako premia bati erantzuten dio, hasierako ebaluazio arduratsu eta helburu zehatz eta errealista eginda duenez (10 puntu)

Ebidentzian oinarritutako metodologia darabil (5 puntu)

Jasangarritasuna: luzaroan landu daiteke eta ondorio iraunkorrak izan ditzake etorkizunerako jarduera-proiektuen bidez (10 puntu)

Ebaluazioa (20 puntu).

Ebaluazio- eta jarraipen-sistema (10 puntu)

Helburuak betetzea eta lortutako emaitzak (10 puntu)

Proiektuaren plangintzan, garapenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzea (emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartzea) (15 puntu)

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko jarduketak espezifikoak. (15 puntu)

2.- Saria jaso ahal izateko gutxienez 60 puntu eskuratu beharko dira.

12. artikulua.- Saria ebaztea.

1.- Epaimahaiak, hautagaitzak aztertu eta balioetsi ondoren, saria emateko proposamen bat egingo du, eta, horrekin batera, hartutako erabakia justifikatuko duten arrazoiak berri emango du. Ondoren, deialdi hau ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio, hots, gizarte-zerbitzuetako eskumenak dituen saileko sailburuari.

2.- Ebazpen hori gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da, dagokion urteko deialdi-agindua argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori pasa eta jakinarazpenik jaso ez badu, dirulaguntza-eskaera ukatu egin zaiola ulertuko du hautagaiak, berariazko ebazpen beharrik gabe. Hala dauka xedatuta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua.

3.- Epaimahaiak deialdia huts deklaratzeko proposamena egingo du honako kasu hauetan:

a) Hautagaitzetako batek ere ez baditu betetzen dekretu honetan jardunbide egokiei begira zehaztutako baldintzak (4. oinarrian ezarritakoaren arabera).

b) Hautagaitzetako batek ere ez duenean erdietsi saria jasotzeko gutxienezko puntuazioa, 11. artikuluko 2. atalean zehaztutakoa.

4.- Epaimahaiaren proposamena ikusi ondoren, sailburuak saria emateko edo deialdia hutsik uzteko agindua emango du. Ebazpen hori EHAA-n argitaratuko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean jakinaraziko: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

5.- Sailburuak agindua ematen duenean, dela saria emateko dela deialdia hutsik uzteko, administrazio-bidea agortuko denez, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkezteko aukera izango da, organo berari aurkeztuta, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

13. artikulua.- Saria onartzea.

1.- Saria irabazi izanaren jakinarazpena jaso eta hurrengo sei lan-egunetan erakunde



sarituak ez badio berariaz eta idazki bidez uko egiten, onartutzat joko da saria.

14. artikulua.- Saria ematea.

1.- Saria ekitaldi publikoan emango da. Erakunde sarituari garaiz jakinaraziko noiz izango den.

2.- Ekitaldi horretan, erakunde sarituak labor azalduko ditu aurkeztutako praktikaren xehetasunak, eta 3.000 euroko txekoa jasoko du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. - Sari hau kudeatzeko eskuratutako datu pertsonalen tratamendua honako arau hauen mende egongo da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Bigarrena. - Dekretu honetan berariaz arautzen ez den guztirako, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. titulua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta haren Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua); Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Hirugarrena. - Lagunkoitasun-jardunbide egokien saria, 2023.

1.- Xedapen hau Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Sariaren 2023ko deialdia egiteko da.

2.- Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

3.- Deialdi hau Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren babesean egiten da. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko urtarrilaren 20ko Aginduaren bidez onartu zen plan hori eta indarrean dago gaur egun.

4.- Deialdi honetan, "Parte-hartzea eta gizarte-sarea" sarituko da Jardunbide Egokien Sarian.

Horretarako, udalerriko auzotarren arteko laguntza hautatu da gai nagusi izateko.

5.- Xedapen honetan argitara emango da 2023ko Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Sarirako epaimahaiaren osaera:

- Presidentea: Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburuorde Lide Amilibia Bergaretxe,

Ordezkoa: Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria, Marian Olabarrieta Ibarrondo

- Bokalak:



1.- Antonio Campos Illarramendi, Helduak Adi! - Asociación Red Social de Euskadi por un Plan Integral de Participación de las Personas Mayores- Elkarteko presidentea.

Ordezkoa: baieztatzeke

2.- Jose Luis Aguirre Etxebarria, Lankidetzeta teknikorako Seniorren "Secot" Elkarteko presidentea.

Ordezkoa: baieztatzeke

3.- Felix Elkoro Agirre, Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Gizarte Zentroen "Agijupens" Elkarteko presidentea.

Ordezkoa: baieztatzeke

4.- Luis Carlos Matias, Pentsiodun, Erretiratu eta Alargunen Arabako "Las Cuatro Torres" Elkarteko presidentea.

Ordezkoa: baieztatzeke

5.- Celia Gómez, LARES EUSKADI elkarteko presidentea.

Ordezkoa: María Gómez, LARES EUSKADIko idazkari teknikoa.

6.- Beatriz Gázquez Delgado, 3D Social Movement-eko kudeatzailea.

Ordezkoa: Beatriz Jiménez González, 3Dko Gizarte Berrikuntzako aholkularia.

7.- M^a Jesús Goikoetxea Iturregui, Deustuko Unibertsitateko Osasun Zientzien Fakultatekoa.

Ordezkoa: baieztatzeke

- Idazkaria:

- Saioa Landa, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako teknikaria.

Ordezkoa: Igone Magunagoitia Moreno

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko XXXaren XX(a).

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

**2023. URTEKO DEIALDIA:****AZALPEN MEMORIA 2023****JARDUNBIDEAREN IZENA****JARDUN ARLOAK**

Aukeratu programaren eragin-arloa/k:

- Kanpoko espazioak eta eraikinak
- Garraioa
- Etxebizitza
- Parte-hartzea eta gizarte-ehuna
- Errespetua eta inklusio soziala
- Herritarren parte-hartzea eta enplegua
- Komunikazioa eta informazioa
- Gizarte- eta osasun-zerbitzuak

ERAKUNDE SUSTATZAILEAK

Ekintza garatzen inplikaturik dauden erakundeak

ERAKUNDE MOTAK

Publikoa Pribatua

NORI ZUZENTZEN ZAION

Hartzaileen kopurua eta profila

LURRALDE-EREMUA

Non egingo den, eta lurralde-irismena

- Toki-esparrua
- Lurraldekoa



- Euskadikoa
- Estatukoa
- Nazioartekoa

ESTATUA

Ekimenaren egungo egoera.

- Ezarrita dago (garatzen)
- Bukatu da

Hasiera-eguna: Hilabetea eta urtea.

Bukaera-eguna: Hilabetea eta urtea.

GAKO HITZAK

DESKRIBAPENA

Jardueraren azalpen laburra

(Gehienez 3.000 karaktere, tarte eta guzti)

**HELBURUAK**

Proiektu edo programaren helburu orokorrak eta zehatzak.

(Gehienez 3.000 karaktere, tarte eta guzti)

**IZAERA BERRITZAILEA**

Praktikaren elementu berritzaileen deskribapena, hala nola:

- *Lagunkoitasuna lantzeko orduan aurrerapenak eta hobekuntzak ekarriko dituzten ekintza eta metodologia berriak edo sortzaileak garatzea.*
- *Transferigarritasuna: hedatzeko edo beste nonbait egiteko modukoa den.*
- *Herritarrek diseinuan, ebaluazioan eta ezarpenean parte har dezaten sustatzea.*

(Gehienez 6.000 karaktere, tarte eta guzti)

**KAUDIMENA ETA KALITATE TEKNIKOA**

Kaudimenaren eta kalitate teknikoaren ezaugarriak deskribatzea, hala nola:

- *Egindako diagnostikoa eta identifikatutako beharra.*
- *Ebidentzian oinarritutako metodologia.*
- *Iraunkorra izan behar du, luzean irauteko eta eragin iraunkorrak izateko, etorkizunerako jarduera-proiektuen bidez.*

(Gehienez 6.000 karaktere, tarte eta guzti)

**EBALUAZIOA ETA EMAITZAK**

Ebaluazioaren deskribapena:

- *Ebaluaziorako eta jarraipenerako tresnak.*
- *Helburuak betetzea, eta lortutako emaitzak.*

(Gehienez 6.000 karaktere, tarte eta guzti)



**GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA PROIEKTUAREN PLANGINTZAN,
GARAPENEAN ETA EBALUAZIOAN**

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko jarduera espezifikoaren deskribapena.

(Gehienez 6.000 karaktere, tarte eta guzti)

**ERANSKINAK ETA ESTEKAK**

Adierazi Euskadi Lagunkoia Sareari bidalitako beste material batzuen zerrenda, baita proposatutako ekimenari buruzko informazio osagarria jasotzen duten estekak ere. (Argazkiak, bideoak, memoriak, liburuxkak...).

WEB ORRIA

Egin klik hemen, testua idazteko.



DECRETO XX/XXXX por el que se regula el “Premio de Buenas Prácticas en Amigabilidad” y se convoca la edición del año 2023

El movimiento de amigabilidad de los entornos con las personas mayores nace promovido por la Organización Mundial de la Salud (OMS) en 2005 en XVIII Congreso mundial de Gerontología de Rio de Janeiro bajo el nombre de Age-Friendly Cities, fundamentándose en dos tendencias características de la población mundial: el envejecimiento demográfico y el proceso de urbanización. Se basa en la teoría que subyace bajo el paradigma del Envejecimiento Activo que se define en el año 2002 como el proceso de optimizar las oportunidades de salud, participación y seguridad a fin de mejorar la calidad de vida a medida que las personas envejecen.

Así, según la OMS, un entorno amigable alienta la vida independiente, el envejecimiento activo y la autonomía personal mediante la optimización de las oportunidades de salud, participación y seguridad a fin de mejorar la calidad de vida de las personas. Se entiende por municipio amigable con las personas mayores, al entorno urbano integrador y accesible que fomenta un envejecimiento activo. Un municipio amigable con las personas reorganiza sus estructuras y servicios para ofrecer una óptima calidad, seguridad y confort a todas las personas independientemente de sus capacidades, fomentando de este modo su participación en todos los ámbitos de la vida social.

